

LAS SIETE VIRGENES NEGRAS DE GIPUZKOA

Luis Pedro Peña Santiago

Argitaletxea: Txertoa. 1992. 133 orrialde.

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 2 (1993), p. 189-192
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

“Volveremos a ir libres por los caminos, saliendo al encuentro de la leyenda y el mito”, dio Luis Pedro Peña Santiagok oraindik hainbeste denbora ez dela kaleratu duen “Las siete vírgenes negras de Gipuzkoa” liburu hasieran, emazteari egiten dion eskaintzan, alegia. Hori xe, da, nire ustez, Luis Pedroren bizitza laburbildu lezakeen esaldietako bat. Goitik behera eta ezker-eskubi zeharkatu ditu Luis Pedrok Gipuzkoa ez ezik, baita Nafarroa eta Araba ere. Badi-rudi, berriz, Bizkaiak ez diola hainbesteko tilinik egiten.

Luis Pedro eskurtsio-liburu batzuen autore besterik ez dela uste dutenei, gogorararazi behar zaie zein liburu eman zuen argitara aurrena: “La argizaiola vasca”. Etnografia aspaldiko kezka izan baitu. Liburu hori orain urtebete pasatxo publikatu zen bigarren aldiz.

Orain komentatu behar dugun “Las siete vírgenes negras de Gipuzkoa” honetan, oso modako ez den gai bati heltzen dio Luis Pedrok: Nondik nora sortu ziren Gipuzkoan halako irudi arraroak? Zergatik daude Ama Birjin horiek dauden tokietan?

Lehenengo galdera horri ez dio erantzun nahi Peña Santiagok. Badaki bera ez dela horretan espezialista eta beste jakitun batzuen iritziak aurkeztu besterik ez digu egiten. Badira batzuk uste dutenak halako beztasuna bilakaera baten ondorio dela; alegia, lehenengo irudi zuriak zirela, eta gero, urteen poderioz beztu. Beste batzuek uste dute berez direla beltzak, eta horrelako aurreneko Andre Mariak Bizantiotik etorri zirela Europara.

Bigarren galderari bai, horri bai gogoz erantzuten diola Peña Santiagok. Bere teoria propioa baitu ermita eta irudi horien kokapenari buruz. Liburuan hasiera aldera, kontatzen digu nola egin zuen topo gai honekin, alegia, nola Ataunen zegoela Juan Arin Dorronsorok alderdi hartako leienda baten berri eman zion: “Zazpi ahizpa Ama Birjin Beltzak San Sebastianeko ermitatik Gipuzkoan dauden bere zazpi ermitetara atera ziren”, dio leiendak. San Sebastianeko ermita hori Ataunen zegoen, leiendaren arabera.

Luis Pedrok ordurako bost Ama Birjin beltz ezagutzen zituen, bostak oso ezqunak gainera: Koruko, Itziar, Junkal, Guadalupe eta Zikuñagoak. Zein ote ziren leiendak aitatzen zituen beste bi horiek?

Zumarragako Antiguakoa izan zitekeen beste bat. Joan ornen zen Luis Pedro bertara eta ezezkoa suertatu. Irudi hura zuria zen. Baina herri hartan ari zela, Jaka Legorburu historigileak albiste pozgarri bat eman zion: Urretxuko baserri batean, Zabaleta izenekoan, horrelako beste irudi bat gordetzen ornen zuten. Eta handik gutxira, eta Samaniego sendagilearen bitartez, beste baten berri jakin zuen: Arrasate aldean, Bedoña auzoko baserri batean beste bat zeukaten gordea, hura ere beltz-beltza.

Ataungo San Sebastianeko ermita hura bota egin zuten XVIII. mendean, baina leienda bizirik zen oraindik gure autorea Ataundik pasa zenean.

Esan dugun bezala, Luis Pedrok bere teoria propioa du ermita eta irudi hauen kokapenari buruzkoa. Hauxe, alegia: Santiago de Compostelaruntz Gipuzkoa zeharkatzen zuten galtzada zaharren ertzean zeuden ermita eta irudi haiek.

Ama Birjin bakoitzari bere kapitulua eskaintzen dio autoeak. Ohitura duen bezala, Peña Santiago aski dokumentaturik azaltzen da. Datu historiko eta artistikoz gain, etnografikoak ere eskaintzen zaizkigu. Eta primizia eta guzti: Urretxu eta Bedoñako bi Ama Birjin horiek alegia.

Dibulgazioa eta zientzia ondo uztartzen dituen liburua, abenturazko liburu baten gisa irakur litekeena baita ere. Izan ere, nahikoa abentura baita Luis Pedrok zazpi irudi hauen atzetik ibili dituen kilometro eta komedia guztiak.

Felix Ibargutxi Otermin